


Mendi magalean ♦



Iñurrategi anaiak, Jon Lazkano eta Tamayo igandean abiatuko dira 'Al filo'-rekin hiru hileko espedizio bitxia osatzeko

Itsas mailatik 8.125 metrora

Ogoño (310 m), Olimpo (2.917), Demavend (5.645), Alan Khu (4.850), Izenik Gabeko Dorrea (6.251) eta Nanga Parbat (8.125) igoko dituzte

Andoni Urbistondo / Donostia

IGANDEAN abiatuko da Greziarantz urte luzetan mami-tzen baina urtez urte ametsen zakuan geratu den espedizio bitxia. Euren agenda betean hutsune bat topatu dute Jon Lazkanok, Jose Carlos Tamayok eta Felix eta Alberto Iñurrategi anaiek, hiru hilabete luze iraungo duen espedizio bat burutzeko. Espedizioak ekialderantza egingo ditu urratsak. Grezia izango da lehen geldialdia, Olimpo gailurrean hain zuzen ere —bertako herritarrentzat sakratua da—. 2.917 metro ditu mendi honek, eta Greziako garaiena da. «Pirinioetako Monte Perdidoen moduko mendia da hau, zailtasunik ez duena», esan digu Felix Iñurrategik. Gailurra apirila amaieran egitea espero du laukoteak.

Handik Euskal Herrira itzuliko dira, baina atsedena hartzeko astirik gabe Iranera joango dira. Bertan, Irango

mendi garaiena igotzen saiatuko dira (Demavend, 5.645 metrokoa), eta Alan Khu ton-torra ere —biak alboan daude—. Biak maiatzean igo nahi dituzte.

Greziara eta Iranera hegazkinean joango badira ere, azken herri horretan autobus txiki bat alokatuko dute Pakistanera joateko, Karakorum mendikatera urreratze-

FELIX IÑURRATEGI

Espedizioko aldaketak

■ ■ ■ «Hasierako asmoa Euskal Herritik Pakistanera errepidez joatea zen, baina Kurdistango giro nahasia ikusita, Iranera hegazkinez joatea hobetsi genuen»

ko. Eskualde honetan daude espedizioko tontor garaienak, eta zailenak. Izenik Gabeko Dorrea (6.251) eta Nanga Parbat erraldoia (8.125), laukotearen azken jomuga. Lehenengo ekainean igotzeko asmoa dute. Nanga Parbat, berriz, lasaixeago hartuko dute, uztaila aldera igotzeko. «Nanga ez da konplexua, baina 8.000 metro baino gehiago ditu eta antzeko beste men-

dietan hartu ditugun neurri berak hartu beharko ditugu».


Nanga Parbatetik Ogoñora

Espedizioak Bizkaian zuen abiapuntua, Ibarrangeluko Ogoño lurmuturrean, «itsas mailatik 8.000 metrora leloa hobe islatzeko», baina lehen igoera hau udan egingo dute,

«orain ez dugu-lako astirik izan».

Espedizioak aldaketa asko izan ditu intenzio hutsa izate-tik errealitate bihurtu den arte. Aldaketa horiek, batik bat, bisitatu beharreko eskualde-

etako giro liskartsuak eragin ditu. Felix Iñurrategik azaldu duenez, «hasierako asmoa Euskal Herritik Pakistanera errepidez joatea zen, Grezia eta Turkia zeharkatuz. Turkian Ararat mendia igo nahi genuen, baina Kurdistango giro politiko nahasia aintzat hartuta, Iranera hegazkinez joatea hobetsi genuen». Espedizioa bera ere kolokan geratu zen, «baina Al filo de lo



KIKE DE PABLO

Izenik Gabeko Dorrea hormaren ikuspegi bat. 6.251 metro ditu.